

**002/2023 JARRAIBIDEA, MAIATZAREN 3KOA, FUNTZIO PUBLIKOKO SAILBURUORDEARENA, TXANDA-KONTRATUARI LOTUTAKO ERRETIRO PARTZIALARI BURUZKOA.**

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak, orain artean, lanaldi partzialeko erretiroaren modalitatea aplikatu izan du, bat etorritz unean-unean indarrean egon den Gizarte Segurantzaren araudiarekin. Gaur egun, bi arauk taxutzen dute erretiro partziala; batetik, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak (zehazki, 215. artikulua) eta, bestetik, lanaldi partzialeko langileen Gizarte Segurantzaren eta erretiro partziala arautzen duen urriaren 31ko 1131/2002 Errege Dekretuak.

Erretiro partzialeko plana EAEko Administrazioak enplegatu publikoen lan bizitzaren amaiera hobetzeko ezarrita dituen barruan dator; eta EAEko Administrazioako Negoziazio Mahai Orokorrean negoziatzen da.

2022ko abenduaren 31n amaitu zen langile lan-kontratudun finkoentzako Erretiro Partzialaren Plana (EAEko Negoziazio Mahai Orokorrek onartu zuen, 2022ko otsailaren 15eko Akordioaren bidez). 2023ko otsailaren 16an, 2023rako langile lan-kontratudun finkoen erretiro partzialerako plan berri bat ezartzeko Akordioa onartu zuen Negoziazio Mahai Orokorrek. Horren eragina 2023ko otsailaren 17tik abenduaren 31ra arte izango da, eta Gobernu Kontseiluak onartu egin du martxoaren 28ko Erabakiaren bidez.

Plan horretako neurriek bat etorri behar dute Enplegu Publikoaren behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriak ezartzen dituen abenduaren 28ko 20/2021 Legetik bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako kidegoei eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legetik eratorritako egonkortze- eta sendotze-prozesuak gauzatzearekin. Hortaz, ezin izango da txanda-kontraturik egin prozesu horietan konprometitu dauden lanpostu hutsetan.

Hortaz, hona hemen jarraibide hau, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 17.2 d) artikuluan xedatutakoaren arabera. Helburua du argi ezartzea zerbitzua emateko zer-nolako modalitateak balia ditzakeen erretiro partziala hartu duen langileak, harik eta ohiko erretiroa hartu arte dagokion lanaldia betetzeko. Halaber, lanaldi partzialeko kontratua nahiz txanda-kontratua formalizatzeke baldintzak ezartzen ditu.

**Lehenengoa. - Aplikazio-eremua.**

Jarraibide hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Negoziazio Mahai Orokorrean ordezkaturik dauden langile lan-kontratudun finkoei aplikatuko zaie. Hain zuzen ere, jarraian adierazten diren negoziazioko sektore hauetako langileei:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakundeautonomoetako langile lan-kontratudunei.
- Hezkuntza Saileko langile lan-kontratudunei.
- Hezkuntza Saileko irakasle eta hezitzaile lan-kontratudunei.
- Hezkuntza Saileko erlijio langile lan-kontratudunei.



- Segurtasun Saileko langile lan-kontratudunei.
- Osakidetza - Euskal Osasun Zerbitzuko langile lan-kontratudunei.

### **Bigarrena. - Indarraldia.**

Jarraibide hau 2023ko otsailaren 16ko Negoziazio Mahai Orokorraren Akordioa onartzen denetik aurrera aplikatuko da, eta horren eraginak 2023ko otsailaren 17tik aurrera izango dira, baldin eta gertaera eragilea 2024ko urtarrilaren 1a baino lehen gertatzen bada.

### **Hirugarrena. - Baldintza orokorrak.**

1. Erretiro partzialaren modalitatea hartzekotan, borondatez hartuko da; horretarako, langile lan-kontratudun finkoek eskaera egin beharko dute aurrez, jarraibide honen aplikazio-eremukoak bada.
2. Erretiro partzialagatiko kotizaziopeko pentsioa eskuratuko badute, Gizarte Segurantzaren araudian ezarritako baldintza orokorrak bete beharko dituzte langile lan-kontratudun finkoek. Langile hauek lanaldi osorako kontratatuta egon beharko dute.
3. Erretiro partziala eskatzen duten langileek lanaldi partzialeko kontratu bat sinatu beharko dute.
4. Administrazioak, aldi berean, txanda-kontratu bat sinatu beharko du beste langile batekin, Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 12.7 artikuluan aurreikusitako baldintzetan. Langileak hautatzeko, jarraibide honen aplikazio-eremuan indarrean dagoen aldi baterako kontratazioa erregulatzen duen araudia errespetatu beharko da.
5. Txandakako langilea hautatzea ezinezkoa bada, erretiro partzialaren eskatzaileari jakinaraziko zaio ezinezkoa dela bere eskaera aurrera ematea.
6. Negoziazio-eremu bakoitzean, aukeran egongo da txandakako langileek lanpostu hutsa arauz bete arte lanpostuan jarraitzeko neurriak ezartzea, betiere lanpostua indarrean dagoen lanpostuen zerrendan badago eta ez bada amortizatzea, eta nolana ere, gehienez 3 urtez.

### **Laugarrena. - Erretiro partziala hartuko duen langileak bete beharreko baldintzak.**

Aurreko araudiarekin bat etorritik, erretiro partzialaren modalitatean hasteko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

1. Gutxieneko adina 2023an:
  - a. 62 urte eta 4 hilabete izatea, betiere kotizatutako aldia 35 urte eta 9 hilabete edo gehiago bada gertaera eragilearen unean.
  - b. 63 urte eta 8 hilabete izatea, betiere kotizatutako aldia 33 urte bada gertaera eragilearen unean;
2. Lanaldiaren murrizketa: eskaera egin zuen garaian langileak betetzen zuen lanaldi osoa % 100etik % 50era murriztuko da lanaldia.
3. Gutxieneko kotizazio-aldia: 33 urteko benetako kotizazioa. Ondorio horietarako soilik, nahitaezko soldadutzan edo ordezeko gizarte- prestazioan egindako denbora zenbatu egingo da, baina urtebete gehienez ere. Alabaina, % 33ko desgaitasun-maila edo handiagoa duten langileen kasuan, 25 urteko kotizazio-aldia eduki beharko dute.
4. Enpresan eskatutako antzintasuna: gutxienez 6 urtekoa erretiro partziala hartu aurreko azken urteetan. Horri dagokionez, aurreko enpresan egiaztatutako antzintasuna kontatuko da, baldin enpresa batean baino gehiagotan jardun bada, Langileen Estatutuaren 44. artikuluan ezarritakoaren arabera.
5. Kotizazio-oinarria: 2023rako lanaldi osoko kotizazio-oinarriaren gaineko ehuneko % 100 izango da.





### **Bosgarrena. - Erretiro partzialeko kontratua.**

1. Erretiro partziala eskatu duen langileak aldi baterako kontratua sinatuko du, eskaera egin zuen urtean indarrean zen lanaldi osoaren % 50eko lanaldikoa. Kontratu hori idatziz formalizatuko da, eta lanaldi partzialeko kontratuaren berezko elementuak jasoko ditu, bai eta zehaztu beharko du langileak aurretik zer lanaldi egiten zuen, eta lanaldi-murrizketaren ondorioz zein egingo duen ere. Kontratu hau egiteak ez du ekarriko langileak eskuratutako eskubideak eta dagokion antzinatásuna galtzerik.
2. Kontratu horren amaiera-data bat etorriko da une bakoitzean dagokion erretiro-data arruntarekin, Gizarte Segurantzaren araudian ezarritako kotizazio-baldintzak kontuan hartuta.
3. Administrazioak lanaldiaren % 50ari dagozkion ordainsariak ordainduko ditu, lanaldi partzialeko kontratuak indarra duen aldi osoan. Ordainsari horiek bat etorri behar dute Gizarte Segurantzak erreleboa eman zaien langileei aitortzen dien erretiro partzialeko pentsioarekin.
4. Era berean, Gizarte Segurantzaren ondorioetarako, alta emanda egongo da ohiko erretiroa hartu arte.

### **Seigarrena. - Erretiro partziala duten langileei zerbitzuak emateko modalitateak.**

1. Erretiro partziala hartu duen langileak murrizketaren ondoriozko lanaldia beteko du, honako modalitate hauetakoren batean:
  - a. Egunero / asterokoa. Egunero joango da lanera, edo lanaldi osoak egingo ditu asteko zenbaketan.
  - b. Hilekoa. Lanaldi osoa egingo duen egunen egutegia aurkeztuko du.
  - c. Urtekoa. Lehendabiziko eta azken urteko orduak pilatu egin ahal izango dira aurreko ala hurrengo urteko orduekin, kasuan kasu. Oro har, tarte bakarrean emango da zerbitzua. Horretarako, lanera joango den urte naturaleko hilabeteen egutegia aurkeztuko du.
  - d. Urte anitzekoa. Urte natural bati baino gehiagori dagozkien lanorduek ekitaldi batean metatuko dira. Oro har, prestazioa erretiro partzialerako baimenaren ondoren eta etenik gabe emango da.
2. Negoziazio-esparru bakoitzean, zerbitzuak emateko modalitate bakoitzerako baldintzak hitzartuko dira, bai eta aldaketak ere, aldaketarik balego.
3. Erretiro partziala hartzeko eskaeran, jarraibide honetan jasotzen diren zerbitzuak emateko modalitateetako bat zehaztu beharko da.
4. Zerbitzuak emateko hautatutako modalitatea ontzat eman beharko du dagokion langileen arloko organoak, kasu bakoitzean eman beharreko zerbitzu publikoaren gorabehera zehatzak kontuan edukita.

### **Zazpigarrena. - Txanda-kontratua.**

1. Txanda-kontratua langabezia dagoen edo enpresarekin iraupen jakineko kontratua duen langile batekin egingo da.
2. Gutxienez, ordeztutako langileari kasu bakoitzean erretiratzeko betetzeko eskatzen zaion adinera iristeko falta zaion denbora iraungo du kontratuak. Txanda-kontratuan honako datu hauek jarri behar dira: ordezkaturako langilearen izena, adina eta inguruabar profesionalak, bai eta ordezeko langileak beteko duen lanpostuaren ezaugarriak ere.
3. Txanda-kontratua lanaldi partzialekoa edo lanaldi osokoa izan ahal da.
  - a) Lanaldi partzialeko kontratua. Txanda-kontratua lanaldi partzialerako sinatuko da, erretiro partziala hartu duten langileen lanaldi osoaren % 50erako, erretiro partziala hartu duen langileak betetzen duen lanpostu berean lan egiteko, kontuan hartu gabe erretiratuak zerbitzuak aldi berean edo bata bestearen atzetik emanez lan egiten duen.



Antolaketa-arrazoen gorabeheran, aukera dago aldi baterako sortutako plaza edo kategoria batean ere izenpetzeko kontratua; zehazki, erretiro partziala hartu duenaren plaza amortizatzea aurreikusita dagoenean edo buruzagitza- edo erantzukizun-plazak direnean tartean. Plaza hori desagertu egingo da txanda-kontratua amaitu orduko.

b) Lanaldi osoko kontratatua. Errelebo-kontratua lanaldi osokoa ere izan daiteke, erretiro partziala hartu duen langilearen lanpostua ez den beste batean. Lanpostua hutsik egon behar da, eta indarrean dagoen lanpostuen zerrendan agertu.

Salbuespena eginez, eta Enplegu Publikoaren behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriak ezartzen dituen abenduaren 28ko 20/2021 Legetik bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako kidegoei eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legetik ere eratorritako egonkortze- eta sendotze-prozesuak erabat gauzatu arte, ordezkoko langilearen lanpostua ordeztutako langilearen lanpostu bera izango da. Hala ere, Hala ere, konprometitu gabeko lanpostu hutsak erabili ahal izango dira deitutako prozesuetan, baldin eta kasu bakoitzean txanda-kontratu bidez bete ahal izateko baldintzak betetzen badituzte.

4. Nolanahi ere, txanda-hartzailearen eta erretiro partzialaren kotizazio-oinarriek pareko izan behar dute, eta, beraz, txanda-langileari dagokiona ezingo da izan erretiro partzialeko pentsioa arautzen duen oinarri-aldiko azken 6 hilabeteetarako dagozkien kotizazio-oinarrien batez bestekoaren % 65 baino txikiagoa.

5. Oro har, errelebo-kontratuari dagozkion zerbitzuak egunero emango dira. Negoziazio-eremu bakoitzean, zerbitzu publikoaren inguruabarrek aukera ematen dutenean, txanda hartzen duen pertsonak asteko edo hileko lanaldia izango duen erabakiko da.

6. Errelebo-kontratua indarrean dagoen bitartean, erreleboko langileak lanpostua uzten badu ordeztutako langileak ohiko erretiroa edo erretiro aurreratua hartzeko adina bete baino lehen, Administrazioak beste langabe batez edo iraupen mugatuko kontratu bat hitzartuta duen beste langile batez ordezkatu beharko du, errelebo-kontratu berri baten taxutuz, erreleboa utzi eta 15 egun naturaleko epean. Kontratu berrian itundutako lanaldiak langileak kontratua iraungi zuenean betetzen zuen lanaldiaren berdina izan behar du, gutxienez. Txanda-kontratu berri baten bidez ordezteko betebeharra beste kasu batzuetara hedatzen da betiere, azkenduta ez, baizik, etenda dauden kontratuetara, hala nola seme-alabak zaintzeko borondatezko eszedentzia, halakoetan etenda lagatzen duelako Administrazioak kotizatzeke betebeharra. Beste kasu batzuetan, hala nola gaixotasun-bajetan, nahikoa izango litzateke errelebo-hartzailea bitarteko lan-kontratu baten bidez ordezkatzeko.

### Zortzigarrena. – Prozedura

1. Jarraibide honetan aurreikusitako erretiro partziala eskatzen duten langileek aldeztu beharko dituzte Administrazioarekin, eta berariaz, lanaldi partzialeko kontratuak zer baldintza izango dituen; bereziki, zerbitzuak emateko modalitatea eta erretiro partziala hartzeko baldintzak.

2. Langilearen eskaeran erretiro partziala hartutako lehen eguna agertuko da.

3. Negoziazio-eremu bakoitzean ezarritako gutxienerako aurrerapenarekin aurkeztu beharko dute eskaera, eta, ez badago eperik ezarrita, 3 hilabeteko aurrerapenarekin. Erretiro partzialeko pentsioa eskuratzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzeke beharrezko dokumentazioa erantsiko beharko dute (adb.: lan bizitzaren txostena, ohiko erretiroaren simulazioa, erretiro partzialaren informazioa...).

4. Eskera bertan behera laga nahi izanez gero edo eskaeraren baldintzen bat aldatu nahi izanez gero, errelebo-hartzailea lan-poltsen eskaintzaren edo antzeko prozeduraren bidez hautatzen den egunera arte aurkeztu ahal izango da.

5. Oro har, sektore bakoitzean borondatezko erretiroa deklaratzeko eskumena duen organoak izango du erretiro partziala deklaratzeko eskumena, beharrezko txostenak bildu ondoren.



### **Bederatzigarrena. - Baimenak.**

1. Norberaren eginkizunetarako baimena.

a. Sektore bakoitzak zehaztuko du zer ordainsari eta kotizazioak nola murriztu behar zaizkion erretiro partziala hartu duen langileari, zerbitzuak pilatuta ematen dituen bitartean eskatutako baimen-egun bakoitzeko.

b. Txanda-kontratua duten langileek ezin izango dute norberaren eginkizunetarako baimena hartu, lotuta daukaten erretiro partzialeko langileen kotizazioan eragingo lukeen kalteagatik.

2. Aldi baterako ezintasunagatiko baimena.

Lanaldi kontzentratua urte anitzeko aldi bakar batean egiteko aukera indarrrik gabe geratuko da baldin eta erretiro partziala hartu duen pertsona aldi baterako ezintasunagatiko baja-egoeran sartzen bada eta metatzea aukeratu ez balu urte naturalean egin beharko lukeen lan-denbora baino luzeagoko baja bada. Medikua alta jaso ondoren, urte anitzeko lanaldi kontzentratua berriz ere ezartzerik izango da, dagokion negoziazio-eremuan hala adostu bada.

### **Hamargarrena. - Akordio sektorialak.**

Jarraibide hau garatze aldera, negoziazioko sektore-eremuetan lotu daitezkeen akordioek jarraibidearen edukia eta printzipioak errespetatu beharko dituzte.

### **Hamaikagarrena. - Ondorioak.**

Instrukzio honek 2023ko otsailaren 17tik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko maiatzaren 3a  
FUNTZIO PUBLIKOKO SAILBURUORDEA



Sin.: JOSÉ M<sup>a</sup> ARMENTIA MACAZAGA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

GOBERNANTZA PUBLIKO  
ETA AUTOGOBERNU SAILA  
Funtzio Publikoko Sailburuordelza  
DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA  
PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO  
Viceconsejería de Función Pública



